

Pilota

Pilota eta baloi jokoak ez dituzte euskaldunek asmatu. Pilota izena euskalduna baldin bada ere, anitz erresumatako behialako jokoak da.



Munduan gaindi desagertzen ari zen joko hau euskaldunek begiratu eta indartu dute.

Egun egiazko kirol gisa onartua da hoge nazio baino gehiagotan.

Plaza laxoan, trinketean eta ezker paretan ar daiteke pilotan, dela esku-huskan, joko garbian edo errebotean.

Historia apur bat

Frantziako erresuma guzian "longue paume" pilota jokoan aritzen zen; hirietan edo jauregietan aldiz "courte paume" jokoan aritzeko gela bereziak apailatzen ziren. Orduan joko zuzena zen nagusi; bekoz-beko edo buruz-buru jokatzen zen.

Parisen, Iraultza garaian, 180 "tripot" deitu pilota leku baziren; parioak debekatuz geroztik, beste zerbaiteko erabiliak izan dira.

Euskal Herrian "longue paume" jokoan aritzen zen gehienik. Oraino ikus daitezke mendixka batzuetan soropila eremu belartsuak, bai eta herri barnean eremu zabalak, gaur egun pilota plazen zelaia direnak...



Pierre Zabalo, Zer da pilota.

Esku huska

Pilota esku zabalez jotzen da. Jokoetarik zaharrena da. Lehen, kanpoan, plaza laxoan aritzen zen pilotan: zola lur arrasa zen eta pilotak motelagoak. Pilotari hoberenak gizon sendo eta gaitzak ziren. Orain emazteak ere esku-huskan ari dira! (ikus Emakume Master Kup).

Oraingo kantzak (pilota lekuen zola) zimentaz edo bideetako mundrun beltzez dira, beraz arras gogorrak.

Ilez eta larruz egin pilotak aise hobeak dira eta biziagoak ere. Ondorioz, pilotariak anitzez laster gehiago egiten du, bereziki trinketeko jokoetan, hango xoko mokoetan, pilota noranahi joaten baita, jokoak aberastuz...

Esku eta erhietan "tako" izeneko babesak ezartzen dira partida hasi aitzin.



Yves Salaberry "Xala" txapelduna

Joko garbia

Jokalariak biga dira bi taldeetan. Erabiltzen duten xistera zume edo mihimenezko zareñoa, erhien sartzeko eskularruarekin. Partidak plaza laxoan egiten dira murraren kontra arituz. Pilota, xistera puntak harrapatu bezain laster igorri behar da.



Xistera handia, paleta, xarea...

Pilotan badira anitz joko mota; hala nola: esku-huska (zaharrena), paleta larruzko pilota, paleta gomazko pilota, xarea, pasaka, joko garbia, xistera handia, zesta punta, pasaka, errebotea eta frontenisa...



Hiztegia ttipia:

- Jo: jokoa hasi
- A la novia: emaztegaiarentzat (azken puntua)
- Ados, berdinketa: berdina izan (puntuetan)
- Atxiki: pilota eskuan edo eskularruan atxikia
- Berriz: pilota berriz jokatu
- Errebot: pilotak punpa egiten eta gibeletik murrara hunkitzen.
- Falta: pilota makur (huts)
- Paret: aitzineko pareta hunki ondoren pilotak gibeletik pareta hunkitzen duelarik zuzenki.
- Punpa: huts teknikoa, atxikiaren kontrakoa, pilotak punpa egiten du eskularruan.
- Sakea: botea
- Tantoa: puntua

Argia Olçomendy

2018ko

Frantziako

Pilota

Txapelduna

Ofizioz euskarako irakasle da Bordeleko Unibertsitatean eta afizioz pilotaria.



2015ean, Mexikon iragan zen Munduko Kopan aritzeko hautaturik izan zen Claire Dutaret Bordagaray bere kidearekin. Haatik, aldi horretan ez zuten medailarik ekarri. 2016ean aldiz, Frantziako Txapeldun titulua lortu zuten trinketeko paleta goma hutsa sailean.

Argia Olçomendy, sortzez Baigorriarra, ttipitik ari zen pilotan bere etxe ondoko pilota plazan; 12 urtetan Zaharrer Segi taldean sartu zen. 1993an, Frantziako Txapelduna izan zen, tarroen mailan, 1999an junior edo artekoen mailan eta senior Nazional A 2014ean. Urriaren 2013an, Argia Olçomendyk urrezko medaila lortu zuen "fronton 2020" Munduko Kopan.



Ramiro Arrue, Pilotariak

So egin interneten: *Emakume Master Cupeko abesti eta bideo ofiziala, Gora pilota maitea "Alaiak", Pilotarien biltzarra "Altzukutarrak"...*

GALDEKETA

1- Zein dira pilota jokoaren espezialitateak?

- ☐ eskuz eskua
- ☐ joko argia
- ☐ xistera handia
- ☐ esku-huska
- ☐ joko garbia
- ☐ bekoz-bekoa
- ☐ txistorra handia

2- Nola deitzen ziren Pariseko pilota lekuak?

- ☐ ezker paretak
- ☐ tripotak
- ☐ frontoiak
- ☐ trinketeak
- ☐ plaza laxoak

3- Nola deitzen zen Iraultza garaiko jokoa?

- ☐ "jus de pomme" jokoa
- ☐ badminton jokoa
- ☐ "jeu de paume" jokoa
- ☐ tenis jokoa

4- Zein da Euskal Herriko joko zaharrena?

- ☐ errebotea
- ☐ frontenisa
- ☐ paleta
- ☐ xarea
- ☐ esku-huska

5- Nola aritzen da esku-huska jokoan?

- ☐ buruz-buru edo bekoz-beko
- ☐ esku zabalez jotzen da

6- Nola deitzen dira esku-huska aritzeko esku babesak?

- ☐ eskularruak
- ☐ takoak
- ☐ taloak

7- Zer erraten da jokoan hasteko?

- ☐ Are!
- ☐ Jo!
- ☐ Sakea!
- ☐ Berriz!

8- Zer jokotan da Frantziako txapeldun Argia Olçomendy?

- ☐ esku-huska, emakume Master Cupean
- ☐ trinketeko paleta goma huts jokoan
- ☐ joko garbian
- ☐ frontenisean
- ☐ xarean

9- Non sortu zen Argia Olçomendy pilotaria?

- ☐ Hazparnen
- ☐ Donibane-Garazin
- ☐ Baigorriin
- ☐ Bordelen

10- Zenbat urtetan hasi zen pilotan?

- ☐ 12 urtetan, Zaharrer Segi taldean
- ☐ ttipi ttipitik, bere etxe ondoko plazan
- ☐ 18 urtetan, Bordeleko Unibertsitatean

11- Zein lehiaketetan ari izan da ?

- ☐ Munduko kopan Mexikon (2015)
- ☐ Joko Olinpikoetan Rio de Janeiro (2016)
- ☐ Frantziako txapelketan (2018)
- ☐ "Fronton 2020" Munduko Kopan (2013)

12- Zu, zer jokotan ari zara?

- ☐ palan
- ☐ esku-huskan
- ☐ ...
- ☐ ez naiz batere ari pilotan